

Funtsezko Elkarteak:

Enpresa sortzerakoan, beste elkarte batzuen beharra sumatu dugu. Bereziki, aplikazioa programatzen hasterako orduan.

Programazio jarduerak hasteko, aplikazioa sortzeaz arduratzen diren informatiko talde bat kontratatuko dugu, hauek guk ez ditugun eta beharrezkoak diren gaitasunak baitituzte. Era berean aplikazioa ondo badoa, programatzaile taldeak bere errekonozimendua jasoko dute egindako lanarengatik eta honekin batera haientzat publizitate ona izan daiteke.

Honetarako beharrezkoak izango diren baliabideak bereziki inguruko informatika dendetan edota interneten bidez lortuko ditugu, behar denaren baitan.

Kanpoko elkarteez gain gure taldeko jatorrizko abileziak ere funtsezkoak izango dira egitasmoa aurrera ateratzerako orduan. Hori dela eta bakoitzak hobekien moldatzen den arloari dedikatuko da, sinergiaren printzipioa aplikatuz.